

Hezkuntza Publikoa indartzeko **DENOK GREBARA!**



Haurreskolak: U28-29 eta 012-13

ELA, LAB eta Steilas sindikatuek **lau greba egun deitu ditugu urtarrila (28-29) eta otsaila (12-13) artean.**

Greba egunak **gure lan-baldintzen sakoneko hobekuntza lortzeko hel-buruarekin** deitu ditugu. Horrela, urtarrilaren 28an dinamika horri hasie-ra emango diogu, azken 15 urteetan pairatu dugun lan-baldintzen okertze prozesuarekin amaitzeko asmoz.

Greba egun horietan aldarrikatuko duguna gure lan-baldintzen sakoneko hobekuntza da eta zentzu horretan, hurrengoak dira azken ikasturteko mahai negoziatzaileetan eta gainerako lanketetan **ELAk aldarrikatu eta defendatu dituen oinarrizko edukiak:**

1. Lan kargak arintzeko neurriak:

- Lanaldi murrizketak:
 - Urteko lanaldia eta egutegia: 1.260 orduko lanaldia urtean (1.170 presentzial + 90 formakuntza), 195 lan egunetan zehar.
 - Eguneko lanaldia: egunean 6 orduko lanaldia (formakuntza eta prestakuntzari beharrezko denbora aitortuta).
 - Kudeaketa zerbitzuan: 1.260 orduko lanaldia, 195 egunean zehar.
- Kudeaketa zerbitzua: beharren azterketa eta giza baliabide zein baliabide teknologikoen gehikuntza.
- Ratioak murriztu:
 - Haurreskolak guztietan bi hezitzaile lanaldi osoan.
 - Hezitzaile/haur ratio jaitsiera tipologia guztietako gela/haurreskoletarako.

2. Erretiroa aurreratzeko neurriak

- Errelebo kontratua baldintza onenetan finkoentzat eta behin behi-nekoentzat (%75eko lanaldi murrizketa eta metatzeko aukera jubi-latzen denari eta errelebistari 100%eko kontratua lanpostua amor-tizatu gabe).
- Erretiro prestazioa osatzeko pizgarriak.
- 60 urtetik aurrera %33ko lanaldi murrizketa eta 62 urtetik aurrera %50ekoa soldata eta kotizazio murrizketa gabe, metaketa aukera-ekin.

3. Eros-ahalmenaren berreskurapena, zorraren aitortza eta soldata igoerak.

- Berehalako %5,4ko soldata igoera: 2021-2024 bitartean galdeuta-ko eros-ahalmena berreskuratzeko.
- 2010-2021 aldiko eros-ahalmenaren galera zor gisa aitortu eta berreskuratzeko neurriak adostu (galera hori %11,85ekoa da). Hortaz, hitzarmenaren indarraldiaren baitan KPlaren gaindiko igoerak:
 - 2025erako eta 2026rako: KPI + %2ko igoerak (%11,85eko zorra kitatzen joateko neurri gisa).

4. Enplegua

- Behin behinekotasun tasa errealak %8a ez gainditzeko konpromisoa.
- Helburu horretarako egiturazko den langile kopurua kontsolidatu behar da, hurrengo neurriak hartuz: langileen kontsolidazioa bultzatzen duten epaiak bete eta egiturazkotzat jotako lanpostu berriak salbuespenezko kontsolidazio prozesu bidez eskaini.
- Eskainitako lanpostuak %50a baino gutxiagoko izango ez direla bermatu.

5. Lan osasuna lehen lerrora

- Arrisku psikosozial eta ergonomikoen azterketa burutu eta neurri zuzentzaileak adostu.
- Lan izaera duten gaixotasunen aitortza.

Gainera, etengabeko formakuntza eta euskara eguneratzeko formakuntza plana negoziatu eta adostea, zein Ordezkoen araudi berria adostea behar dugu, ordezkapen kudeaketa sistema telematikoa martxan jarriz.

Lana eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ezarri eta berdintasun plana adostu eta eguneratzea ere beharrezkoa da.

Lau greba eguneko dinamika abian jartzea lortu dugu! ELA prest dago aldarrikapenok lortu arte abian jarritako greba dinamikari jarraipena eman eta horren intentsitatea igotzeko. Langileen atxikimendua edukiz gero, ELAk grebak sostengatzeko baliabideak ditu. Hezkuntza publikoa indartzeko, denok grebara!

Hezkuntza Publikoa indartzeko **DENOK GREBARA!**

Haurreskolak: U28-29 eta 012-13

1. **Lan zamak arindu!**
2. **Erretiroa aurreratu!**
Gazteberritze plana!
Primak eta Itzarri berreskuratu
3. **Erosahalmena berreskuratu!**
KPlak langile denontzat!
4. **Enplegua egonkortu eta bermatu.**
Behin behinekotasun erreala %8ra jeitsi
konsolidazio bidez!
Fusio eta itxiera bidezko lanpostu
suntsiketarik ez!
5. **Ordezkoen lan baldintzak hobetu eta guztion**
lizentziak eta baimenak hobetu
6. **Azterketa medikuak eta arrisku psikosozialen**
azterketak egin, gaixotasun kronikoak
dituztentzat egokitzapenak!
7. **Berdintasun eta euskara**
planak garatu!

